



HERRI BIZITZA LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2015/02/11

BILERA ZENBAKIA: 2

ORDUA ETA LEKUA: Arratsaldeko 19:00etan

PARTEHARTZAILEAK: Amaia, Maite, Ainara, Mattin, Maddi, Rosi, Jaione, Tere, Amaia, Rut, Aitor, Ekaitz eta Joxe Luis. (Hauetz gain: Mari Jose (Arama) eta Amaia (Korrika))

EGINDAKO LANAREN LABURPENA

LANDUTAKO GAI ORDENA

1. Korrika.

Martxoak 19tik 29ra Korrika ospatuko da Urepeletik Bilbora.

Itsasondotik martxoak 23an pasako da 00:10etan Legorretatik Ordiziara bidean.

Goierriko Korrikako arduradunak, Amaiak, adierazi du asmora dela autobus bat antolatzea Goierritik Urepelera Korrika hasierarako.

Itsasondori 2 kilometro erostea tokatzen zaiola ere adierazten du eta oniritzia ematen da.

Korrika Txikia antolatzeko Aramarekin batera lotzea erabakitzen da eta Aramatik etorri den Mari Josek adierazi du, Araman Martxoak 22an egitea erabaki dutela.

Eztabaidatu ondoren, adosten da Martxoak 22an arratsaldeko 17:30etan Aramatik irten eta Itsasondoko Tren geltokian eskukoa Itsasondori pasatzea denek batera Plazara iristeko.

Ondoren Haur guztientzako Txokolatea prestatuko da plazan. Arduraduna Rosi.

19:30etan Triki-Pintxo-Poteoa antolatzea erabakitzen da, korrika iritsi bitartean herria giroturik izan dadin. Hau Arbel-aitz elkartean hasi, Nautiko, Jubilatuta Elkartea eta Kaxintane bitarteko ibilaldia eginez burutuko litzake, Plazan amaitzeko.

00:10etan GUZTIOK KORRIKA!!!

Trikitariei abisatzeko Anari esango zaio.



Kilometroak erosteko, 1. udalak erosiko du eta 2. Arbel-Aitz Elkarte, Ijittu kirol elkarte eta Eskola-ren artean erostea proposatzen da.

Martxoak 8tik aurrera bi asteetan Korrikako materialaren salmenta eta kuestazioak egingo dira.

Martxoak 14ean Korrika-ko ekintzen barruan, eta Mintzalagun taldearen ekimenez, Legorretako Sagardotegira txangoa, bazkaria eta buelta oinez, egingo dira.

Martxoak 13, 19:00etan, Korrika-ko bideo emanaldia egitea erabakitzen da.

2. Euskararen erabilera.

- Mintzalagun egitasmoan 5 talde martxan daudela adierazten da.
- UEMATik bi tailer antolatu dituzte.

Arnasgunea tailera: Helburu zehatz bat presentatu behar zaie.

Kalean euskaraz egitea bultzatzea.

Eskolan erdaldun haurren bat agertzen bada, erdara gailentzen dela ikusten da.

Euskara plana begiratu behar da.

- Maiatzak 6 eta 13an arratsaldeko 18:30etan Arnasgunea tailerrak egitea proposatzen da.

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?

HURRENGO BILERA

Hurrengo bilera, Martxoan egingo dugu.

Gai ordena:

1. Herriko jaiei buruzko hausnarketa.
2. Kultur ekintzei buruzko informazioa.